

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Ingurumena Tafallako iparraldeko sutean kaltetutako gunearen berreskuratzeaz arduratuko da

Ezponda, otalurr eta basoko lur guztiak babestuko ditu, ezingo direnak aldatu, aprobetxamendu zinegetikoa eten egin du eta nekazaritzako lan zehatz batzuk kontrolatuko ditu

Astelehena, 2016.eko irailak 19

Nafarroako Gobernuak Tafallako iparraldean izandako sutean erretako ezpondak, otalurrak eta basoko lurak babestuko ditu, aldatuak gerta ez daitezzen eta, hala, gune hori ezbeharraren aurreko egoerara ahalik eta bizkorren itzul dadin, indarrean dagoen Nafarroako Basoko Ondarea Babesteko eta Garatzeko Legeak erabakitzen duen moduan.



Sutearen aurreko gunearen ikuspegia.

Departamentuak jakinarazi du ere, finketan egindako edozein hobekuntza, erreten-garbiketa edo erabilera-aldaketa, hori guztia Mendien Zerbitzuari eskatu behar zaiola, eta dagokion mugapeko Nafarroako Gobernuko Basozaintzako langileek bertatik bertara artatu beharko dutela. Gainera, aprobetxamendu zinegetikoa etenda geratzen da oraingoz.

Neurri horien helburua gune hori udazkenean babestea da; izan ere, urtaro horretan bereziki gizakiek egin ohi dituzten jarduera zehatz batzuek, euriarekin batera, erretako higadura areagotu dezakete, orain babesik gabe dagoena.

Hala jakinarazi diote Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko langileek kaltetutako udaletako hautetsiei eta Erdialdeko Garapen Partzuergoko langile teknikoei, bi aldeek iragan astean izandako lehen bilera teknikoan. Bileraren helburuak honako hauek ziren: suteak eragindako kalteen behin betiko balorazioa egiteko orduan aurrera egitea; dauden zalantzak aztertzea eta beharrezko eremu, lantalde eta egiteke dauden lanak zehaztea abuztuaren 25ean hasitako suteak kaltetutako Erdialdeko 3.538 hektareak ahalik eta bizkorren eta gutxieneko ondorioekin berreskuratzeke.

Ondoren, gaikako bilerak egingo dira jarduteko eremuak zehatz-mehatz lantzeko.

Lehen jarduerak

Suak eragindako eremua berreskuratzeko lehenengo jarduerak eta premiazkoenak udazken honetan bertan egingo dira, nahiz eta datorren udaberrira arte ez diren zehatz-mehatz definituko kalteen balorazioa eta masak birsortzeko ekintza zehatzak.

Baliabide zinegetikoaren berreskuratzearekin batera, jarraipen handia egingo da, eta neurri berriak ezartzeko beharra ebaluatuko du eta espezie bakoitzaren aprobetxamendu zinegetikoa berreskuratzeko une egokiak hautemango.

Ingurumeneko teknikariek azaldu dutenez, kaltetutako gunearen paisaia Erdialdeari dagokio, ekologiaren eta paisaiaren aldetik oso aberatsa dena, eta erabilera publiko eta turistiko garrantzitsua duena: bocagea, mosaiko bat da eta bertako eremu lau, emankorrenak gehienbat nekazaritzako laborantzak dira, erreten, ezponda eta otalurrek zipriztinduta nahiz mugatuta daude, eta beheko mendien masek, sastraka mediterraneoak eta orla arantxadunek okupatzen dituzte.

Paisaia horretan balio ekologiko handiko jarraikortasun nahasi bat dago, ibaiertzetako eta basoetako landaretza-komunitateen eta arte, erkametz eta txaparren artean, eta Alepo pinuaren birpopulatzearekin batera, altuera handieneko gunek hartzen dituzte. Jarraikortasun horrek izaki bizidunei babesa, ura eta janaria ematen die (korridore ekologikoak).

Kaltetutako azalera handiak paisaia hori arriskuan utzi du, eta haren erabateko kontserbazioan arreta berezia jarri behar da.